

**EBAZPENA, 2024KO MAIATZAREN 9KOA,
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO
ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN
ZERBITZUKO LANGILEEN IDENTIFIKAZIO-
TXARTELA ARAUTZEN DUENA.****RESOLUCIÓN DE 9 DE MAYO DE 2024, DEL
DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE
JUSTICIA, POR LA QUE SE REGULA LA TARJETA
DE IDENTIFICACIÓN DEL PERSONAL AL
SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE
JUSTICIA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE
EUSKADI.**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 497. artikuluko j) letran adierazten denez, funtzionarioak beren identitate eta kategoria jakinaraztera behartuta daude hala eskatzen dieten interesdunei, segurtasun- arrazoiengatik ezinezko izan ezean. Era berean, *“Herriarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen Gutunak”* 13. atalean ezartzen duenez, herriarrek eskubidea dute beraz arduratzen den agintari edo funtzionarioen nortasuna eta kategoria ezagutzeko, auzi kriminaletan segurtasun- arrazoiengatik bestela ezarri ezean.

La Ley Orgánica del Poder Judicial señala en su artículo 497, en su letra j), que los funcionarios están obligados a dar a conocer su identidad y categoría a las personas interesadas que lo requieran, salvo cuando ello no fuera posible por razones de seguridad. Asimismo, la *“Carta de derechos de los ciudadanos ante la Justicia”*, establece en su apartado 13, que la ciudadanía tiene derecho a conocer la identidad y categoría de la autoridad o personal funcionario que le atienda, salvo cuando esté justificado por razones de seguridad en causas criminales.

Adierazi behar da, era berean, langileak identifikatzea funtsezkoa dela herriarrek herri-administrazio guztiekin, Justiziarenarekin barne, izan behar duten gardentasunaren eta arreta egokiaren printzipioak finkatzeko. Horrela, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (EB) 5.1.c artikuluan ezarritako datuen minimizazio-printzipioaren arabera, erabilitako datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera.

Es necesario indicar que, de igual modo, la identificación del personal es fundamental para asentar los principios de transparencia y atención adecuada que han de presidir las relaciones de la ciudadanía con todas las administraciones públicas, incluida la de Justicia. De este modo, de acuerdo con el principio de minimización de los datos establecido en el artículo 5.1.c del Reglamento (UE) General de Protección de Datos, los datos personales utilizados serán *adecuados, pertinentes y limitados a lo necesario en relación con los fines para los que son tratados*.

Hori guztia kontuan hartuta, langileak identifikatzeko betebeharra betetzeko eta, langileen segurtasun- arrazoiengatik, identifikazio-txartelean beste datu pertsonal batzuk erabiltzea saihesteko, egokitze eta nahikotzat jotzen dira txartelaren titularraren argazkia, izen-abizenak eta langileen erregistro-zenbakiaren datuak.

Teniendo todo ello en cuenta, para cumplir con la obligación de identificar al personal y evitando por razones de seguridad del personal el uso en la tarjeta identificativa de otros datos personales, se entienden adecuados y suficientes los datos de la fotografía del titular de la tarjeta, su nombre y apellidos y su número de registro de personal.

Horregatik guztiagatik, ordezkaritza duten erakunde sindikalekin negoziatu ondoren, honako hau

Por lo anteriormente expuesto, previa negociación con las organizaciones sindicales representativas,

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa. Xedea.

Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren langileen identifikazio-txartela arautzea.

Primero. Objeto.

Esta resolución tiene por objeto regular la tarjeta de identificación del personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bigarrena. Eremu subjektiboa.

EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen identifikazio-txartela nahitaez, modu pertsonalean eta besteren ezinean erabili beharko dute funtzionarioek, honako kidego hauetako titularrek eta bitartekoek:

Segundo. Ámbito subjetivo.

La tarjeta de identificación del personal al servicio de la Administración de Justicia en la C.A.E. será de utilización obligatoria, personal e intransferible para el personal funcionario, titular e interino de los siguientes cuerpos:

1.- Kidego orokorrak:

- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoa.
- Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoa.
- Laguntza Judizialeko Kidegoa.

1.- Cuerpos Generales:

- Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa.
- Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa.
- Cuerpo de Auxilio Judicial.

2.- Kidego berezia:

- Auzitegiko medikuen kidegoa.

2.- Cuerpo Especial:

- Cuerpo de Médicas y Médicos Forenses.

Hirugarrena. Helburuak.

Identifikazio-txartelaren helburua izango da:

- Titularra EAEko Justizia Administrazioaren langile gisa identifikatzea.
- Titularra egiaztatzea jardura judizialak egoitza judizialek kanpo egiteko.
- Zehazten diren bulego eta bulegoetarako sarbidea.
- Orduetgia eta lanaldia bete izanaren justifikazioa.

Tercero. Finalidades.

La tarjeta de identificación tendrá como finalidad:

- Identificar a su titular como personal al servicio de la Administración de Justicia en la C.A.E.
- Acreditar a su titular para la práctica de actuaciones judiciales fuera de la sede judicial.
- El acceso a las oficinas y dependencias que se determinen.



- Justiziaren arloan eskumena duen administrazio-organoak zehazten duen beste edozein.

- La justificación del cumplimiento del horario y de la jornada laboral.
- Cualquier otra que se determine por el órgano administrativo competente en materia de Justicia.

Laugarrena. Edukia.

Justizia Administrazioiko langileen identifikazio-txartelak eduki hau izango du:

- a.- Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatibo instituzionala.
- b.- Titularraren argazkia.
- c.- Titularraren izen-abizenak.
- d.- Titularraren langileen erregistro-zenbakia (EIZU – SAP HCM erregistroa).
- e.- Atzealdean, informazio-testu hau agertuko da: «Indarrean dagoen araudiaren arabera, txartel honek egiaztatzen du titularraren EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioa dela, ordenamendu juridikoak horri dagokionez aitortzen dizkion ondorio guztiekin».
- f.- Medikuei eta Medikuei Forentsetako langileek dagokien kidegoaren izena eramango dute identifikazio-txartelean.

Bosgarrena. Txartelaren titulartasuna.

Identifikazio-txartelak Justizia Administrazioaren Zuzendaritzaren jabetzakoak izango dira, eta hark erabakiko du nola entregatu eta itzuli, hurrengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

Seigarrena. Eskaera eta izapidetzea.

Identifikazio-txartelak dagokion lurralde historikoko Kudeaketa Unitate Teknikoari/EATri eskatu eta izapidetuko zaizkio, horretarako ematen diren jarraibideen arabera.

Cuarto. Contenido.

La tarjeta de identificación del personal al servicio de la Administración de Justicia tendrá el siguiente contenido:

- a.- Imagen corporativa institucional del Gobierno Vasco.
- b.- Fotografía de su titular.
- c.- Nombre y apellidos de su titular.
- d.- Número de registro de personal (EIZU – registro de SAP HCM) de su titular.
- e.- En el reverso figurará el siguiente texto informativo: «De conformidad con la normativa vigente, la presente tarjeta acredita que la persona titular es funcionaria al servicio de la Administración de Justicia en la C.A.E., con todos los efectos que al respecto le reconoce el ordenamiento jurídico».
- f.- El personal de Médicas y Médicos Forenses llevará en su tarjeta identificativa incorporado el nombre del cuerpo al que pertenece.

Quinto. Titularidad de la tarjeta.

Las tarjetas de identificación serán propiedad de la Dirección de la Administración de Justicia, que decidirá sobre su entrega y devolución en los términos previstos en los artículos siguientes.

Sexto. Solicitud y tramitación.

La solicitud y tramitación de las tarjetas de identificación se realizarán a la Unidad Técnica de Gestión/EAT del Territorio Histórico correspondiente, de conformidad con las instrucciones que se dicten al respecto.

Zazpigarrena. Zaintzeko betebeharra.

Identifikazio-txartela titularraren kontrolpean egongo da beti, bera baita txartelaren zaintzaren erantzule bakarra, eta Eusko Jaurlaritzak ez du inolako erantzukizunik izango txartelaren iruzurrezko, bidegabeko, okerreko edo zabarkeriazko erabilerearen aurrean.

Titularra ez den beste pertsona batek identifikazio-txartela erabiltzeak diziplina-erantzukizuna ekarriko du, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta aplikatu beharreko erregelamendu-araudian aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, erantzukizun zibilak edo penalak.

Titularrei beste bide batzuetatik eskatu ahal izango zaie identifikatzeko, haien nortasunari edo erabilera zuzenari buruzko zalantzak daudenean.

Zortzigarrena. Txartela berritzea eta itzultzea.

1. Identifikazio-txartela berrituko da nabarmen hondatzen, galtzen edo lapurtzen bada.

Instrukzio hau eragin duen ebazpenean aurreikusitako identifikazio-txartel berria jasotzeko, aldeztu aurretik lehengo txartela Kudeaketa Unitate Teknikoan/EATn entregatu beharko da, salbu eta txartela galdu edo lapurtu delako. Kasu horretan, Administrazioak eskubidea izango du berritzeko eskabidearekin batera jarritako salaketaren fotokopia bat aurkezteko eskatzeko.

2. Identifikazio-txartela itzultzeko arrazoiak dira:

- a. Funtzionario-izaera galtzea.
- b. Bitarteko langileen lan-poltsatik kanpo uztea.
- c. Destinoa EAetik kanpo lortzea.
- d. Behin betiko etetea.

Séptimo. Obligación de custodia.

La tarjeta de identificación permanecerá siempre bajo el exclusivo control de su titular, como responsable único de su custodia, sin que en ningún caso el Gobierno Vasco responda de su uso fraudulento, indebido, incorrecto o negligente.

La utilización de la tarjeta de identificación por persona distinta de su titular determinará responsabilidad disciplinaria en los términos previsto en la Ley Orgánica del Poder Judicial y en la normativa reglamentaria aplicable, sin perjuicio, en su caso, de las responsabilidades civiles o penales.

Las personas titulares podrán ser requeridas para su identificación por otros medios cuando existan dudas sobre su identidad o sobre su correcta utilización.

Octavo. Renovación y devolución de la tarjeta.

1. La renovación de la tarjeta de identificación se efectuará en caso de deterioro notable, pérdida o sustracción.

Para recibir la nueva tarjeta de identificación prevista en la Resolución que motiva la presente Instrucción será preciso entregar previamente la antigua en la Unidad Técnica de Gestión/EAT, ello excepto por motivo de pérdida o sustracción, en cuyo caso la Administración se reserva el derecho de requerir en su caso que se acompañe a la solicitud de renovación una fotocopia de la denuncia interpuesta.

2. Son causas de devolución de la tarjeta de identificación:

- a. Pérdida de la condición de funcionario/a.
- b. Exclusión de la bolsa de interinos/as.
- c. Obtención de destino fuera de la C.A.E.
- d. Suspensión definitiva.

e. Zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoera aldatzea.

Funtzionarioak aurrez aurreikusitako arrazoiren batean eroriz gero, nahitaez itzuli beharko dio identifikazio pertsonaleko txartela Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, eta dagokion Kudeaketa Unitate Teknikoan/EATn entregatu beharko du.

Bederatzigarrena. Identifikazio-txartelak ematea.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak bere aplikazio-eremuan dauden Justizia Administrazioako langile guztiei dagozkien identifikazio-txartelak emango dizkie.

Horretarako, funtzionarioek argazki eskaneatu berri bat aurkeztu beharko dute dagokion Kudeaketa Unitate Teknikoan (EAT), adierazitako egunean, koloretan eta txartelaren tamainan.

Identifikazio-txartel berriak pixkanaka banatuko dira Kudeaketako Unitate Tekniko/EAT bakoitzetik. Ebazpen hau indarrean jarri aurretik erabilitako txartela identifikazio-txartel berria ematen zaien unean entregatu beharko da, eta, nolana ere, ez du baliorik izango eta ezingo da erabili ezartzen den epea igarotakoan. Epe hori desberdina izan daiteke organo, bulego edo Lurralde Historiko bakoitzerako.

Identifikazio-txartela nahitaez erabili beharko da entregatzen diren unetik aurrera.

Hamargarrena.- Indarrean jartzea.

Ebazpen hau sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

e. Cambio de situación administrativa diferente a la de servicio activo.

Cuando el personal funcionario incurra en alguna de las causas previstas anteriormente, deberá obligatoriamente devolver la tarjeta de identificación personal a la Dirección de la Administración de Justicia, entregándola en la Unidad Técnica de Gestión/EAT correspondiente.

Noveno. Entrega de las tarjetas de identificación.

La Dirección de la Administración de Justicia suministrará las tarjetas de identificación correspondientes a todo el personal al servicio de la Administración de Justicia incluido en su ámbito de aplicación.

A tal efecto, el personal funcionario deberá presentar en la Unidad Técnica de Gestión/EAT, correspondiente, el día que se le indique, una fotografía escaneada reciente, en color y de tamaño carnet.

La distribución de las nuevas tarjetas de identificación se realizará progresivamente desde cada una de las Unidades Técnicas de Gestión/EATs. La tarjeta utilizada con anterioridad a la entrada en vigor de la presente resolución deberá ser entregada en el momento en el que se les facilite la nueva tarjeta identificativa y, en todo caso, dejará de tener validez y resultará inoperable transcurrido el plazo que se establezca. Dicho plazo podrá ser diferente para cada uno de los órganos, oficinas o Territorios Históricos.

La utilización de la tarjeta identificativa será obligatoria desde el momento en el que se haga entrega de las mismas.

Décimo.- Entrada en vigor.

La presente resolución entrará en vigor el día siguiente al de su firma.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 9a

Vitoria-Gasteiz, a 9 de mayo de 2024

Jon Arturo Uriarte Unzalu
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA